

## Urnietako bake eta bizikidetza taldearen deia

Elkarbizitzan sakontzeko, kide berrietara zabaltzeko borondatea erakutsi du Urnietako bake eta bizikidetza taldeak. Deialdi irekia egingo dute laster / 2-3

**Bazkunak 25 urtez laguntza eman duten kideei esker ona adierazi zien, Santa Ageda bezperan / 9**



**Jokin Lizeagak Berastegiko lehenengo Negu Trail lasterketa irabazi zuen / 12**

**Olatz Odriozola Munduko ziklokros txapelketatik itzuli da, pozik baina arantzatxoarekin / 16**



**Eguraldia hotz, giroa bero**

Mozorro egunak Eskualdean, igandera bitarte

Hotza nagusi izan da aste osoan zehar. Larunbat goiza bustia dator, baina arratsalderako altxako du.

## Pausoz pauso - MARTXOAK 8 EMAKUME



**8 emakume andoaindar aterako ditugu plazara**

Proposamenak luzatzeko azken eguna:  
Otsailak 11. Hainbat tokitan

**Kalejira iragartzeko spot-a grabatu nahi?**

Ikusentzunezko ahalduzte tailerra:  
Otsailak 24. Urigain



ANDOAINGO UDALA



Emakume eta Gizonen Berdintasun lansaila | sbarrenetxea@andoain.eus | 943 300 830 Luz. 397



Mertxe Estebez, Felipe Izagirre, Joxpi Lasa eta Rosa Elozegi abenduan egin zuten bileran. AIURRI

# Bizikidetza helburu

Urnietan herritar taldea biltzen ari da, euskal gatazkak utzitako itzalaren inguruan hausnarketa egin, eta memoriaren bidetik, etorkizuna lantzeko. Kide berrietara zabaltzeko, urnietarregana eta elkarteetara joateko asmoa agertu dute

## Olatz Lasa, Jon Ander Ubeda

URNIETA

Maialen Lizarralde Baketik erakundeko ordezkaria da herritarren arteko bilkuren jarraipena egiten ari dena. Hark eskaini ditu lehen azalpenak: "Herritarren artean deialdia luzatu genuen, Urnieta mailan bakea eta bizikidetzari ekarpenak egin asmoz. Taldea 2015aren amaieran eta 2016aren hasiera aldera osatuz joan zen. Animatu zirenekin biltzen hasi ginen, eta gaur egun zazpi lagun gara. Horietatik emakumezkoak sei, eta gizonezkoa bakarra. Hilean behin biltzen gara".

Barne hausnarketa eginez ekin zioten, bakoitzak bere bizipenak agertuz. Zenbat buru, hainbat aburu. Mestizaia hori da Rosa Elozegik defendatzen duena: "Bakoitzaren iritzia ezberdina zela bagenekien. Bakoitza bere

ikuspegiarekin, elkar ezagutzeko prozesua izan da". Felipe Izagirrek hartu du hitza, jarraian. Bizikidetzan eta sufrimenduan aditua eta aritua dela esan daiteke, bere hausnarketa interesgarriak sarritan agertu baititu

Aiurri astekarian. Bizikidetza taldearen iragana, oraina eta etorkizuna bikain laburbildu ditu: "Hasieran ez genekien nondik-nora jo, ez genuen elkar ezagutzen. Klase, ideologia, pentsaera ezberdineko jendea biltzen

## Urnietarrei gonbidapena

"Urnietako bake eta bizikidetza taldea ideologia, sentsibilitate eta ibilbide ezberdinak ditugun pertsonak osatzen dugu, maila pertsonalean ari garenak eta geure burua soilik ordezkatzeko duguna. Ardura batek batzen gaitu: bakea, bizikidetza eta memoria. Ardura horrek eraginda, elkarrekin lanean dihardugu bakeari eta Urnietako bizikidetzari gure ekarpena egiteko asmoz". Gutxi asko, bake eta bizikidetza taldeko kideak antzeko aurkezpen modukoarekin hurbilduko dira hainbat herrikiderengana. Urnietarregana jo nahi dute, euren iritzia eta ideiak jaso asmoz.

Taldeko kide izan edota informazio gehiago jaso nahi duenak taldeko kideekin jarri beharko du harremanetan, horretarako posta elektronikoa erabilita: urnietabizikidetza@gmail.com.

ahalegindu gara. Guztion asmoa da ezezagutza hori gainditu eta herriko bizikidetza sustatzea. Orain hartu duen dimentsioarekin aurrera egitea interesgarria delakoan nago, memoriaren lanketak belaunaldi berriengan eragina izan dezakeelakoan".

## Urnietarrak aitzindari dira bake eta bizikidetzan

Herri gutxitan ari dira horrela lanean, Urnieta eredugarria da Gipuzkoan. Eta, hala ere, solaskideak ez dira erraz konformatzen. "Egin duguna zabaltzea nahiko genuke. Jendea falta dela ikusten dugu", dio Rosa Elozegik. Mertxe Estebezek sentsibilitate zehatzak aipagai ditu: "Iritzi guztietara zabaltzea nahiko genuke. Esaterako, faltan botatzen dugu popularren edo sozialisten inguruko jendea. Urnietan sufritu izan dugu, baina barnean eraman genuen. Eta hori kanpora atera nahi da. Nola? Zer gertatu zen, zer egin zen eta zer ez zen egin aztertuz. Bakoitzak bere iritzia eta ikuspuntua dauka, eta beste ideologia horien ikuspegia faltan botatzen dut".

Joxpi Lasa izan da hitza hartzen azkena. Hausnarketa egin duen horietakoa dela dirudi: "Garrantzitsua izan da bizikidetza taldearen lehenengo fasea. Elkar ezagutzeko oso aberasgarria izan da. Konfiantza giro batean norberaren bizipenak azaltzeko aukera izatea garrantzitsua da. Memoria zer den zehaztu eta aztertuko genuela erabaki genuen: guretzat memoriak zer esan nahi duen, zer uler daitekeen memoria bezala, eta zer ez... Adostasunak bilatuz memoriaren inguruko ideia batzuk ordenatu ditugu. Orain ikusi nahi dugu ea gainontzeko urnietarrek gaia nola bizi duten, eta aurrera jarraitzeak merezi ote duen edo ez".

## Taldeak aurrera jarraitzeko gogoia du, kide berriekin

Gerora begira jarrita daude, etor daitezkeen kide berrien zain. Helduleku hori funtsezkoa da bake eta bizikidetzan sakontzeko. Felipe Izagirrek horren beha-

**KLASE, IDEOLOGIA, PENTSAERA EZBERDINEKO JENDEA BILTZEN DA URNIETAKO TALDEAN**

## Zer da zuentzat bizikidetza?

Joxpi Lasa:

"Politikak eragin handia izan du herrian, eta horrek aurreiritziak sortu ditu herritarren artean. Herri txikia denez, are gehiago. Bizikidetza elkar entzuteko eta ulertzeko gai izatea da".

Felipe Izagirre:

"Errespetua, ezer baino lehen. Oraindik politikak pisu handia dauka. Belaunaldi berriak elkarrekin ibiliko dira, ez dute horrenbesteko arazorik izango. Denbora behar da, baina bide horiek jorratzea ezinbestekoa da".

Rosa Elozegi:

"Eguneroko bizitzan, ekitaldiren bat antolatzean, bereizketarik gabe herri gisa erantzutea. Eta ez bi taldetan bereiztea, Olentzerorekin gertatu izan den bezala. Niretzat elkarbizitza gauza horietan dago".

Mertxe Estebez:

"Politizazioa eman da, eta horrek ezberdintasunak sortu ditu herritarren artean. Jendea alderdi politikoen arabera bereizten dugu. Aurreiritziak ditugu. Harremanetan kutsu politiko hori kentzea bizikidetzarekin lotzen dugu".

rra azpimarratzeari ekin dio: "Urnietan badago oroimena, justizia eta erreparazioa behar duen jendea. Gazteek ere jakin dezaten hain gertuko dituzten herritar batzuk sufrimendua jasan zutela".

**HERRITARREN BAKE ETA BIZIKIDETZA TALDEA LASTER URNIETARRENGANA HURBILDUKO DA**

### Politikoen logikatik urrun lanean ari den herritar taldea

Herritar taldea alderdi politikoen logika eta aterpetik urrun dagoela argi utzi nahi izan dute. Denek azpimarratu nahi izan dute hori. Rosa Elosegik independentzia hori azpimarratu nahi du: "Gu ez gaude inongo alderdi politikotan sartuta. Libre etortzen gara, herritar gisa. Herrikide gehiago hurbiltzera gonbidatu nahi ditugu, foro hone-tara".

Aiurri astekariaren bidez me-zua etxebizitza guztietara zabal-tzen baliatzea beharrezko ikus-ten du Joxpi Lasak: "Jendeak zertan gabiltzan jakitea nahi dugu. Bide batez, lerro hauen bitartez, beraiengana hurbildu-ko garela iragarri. Ahal den neurrian, euren parte hartzea lortzea nahiko genuke".



### Parte hartzailea, inklusiboa

**KARMELE URBISTONDO** BAKE ETA BIZIKIDETZA TALDEA

Bizikidetza zer den galdetzen didate Aiurritik. Hauxe nire hausnarketa: Urte luzetako gatazka politikoak eragin duen, eta oraindik orain eragiten duen eskubide urraketaren aurrean, dagozkigun eskubide guztien jabe izateko tresna, bitartekoa da bizikidetza. Herritarrok, gizabanako gisa ez ezik, eskubide kolektiboak ere baditugu, eta horien aitortza zein egikaritzea da bizikidetza, alegia, egunez eguneko ariketa.

Bizikidetza, eskubide horiek guztiak berdintasunetik eta berdintasunean garatu ahal izatea da, kategorizaziorik gabe, mailaketarik gabe. Proiektu politiko guztien gauzapena ahalbidetuko duen dimensio politiko bat, egoera bat da.

Bizikidetza estrategia bat da. Gizartea ehuntzeko jarrera soziala, politikoa eta kulturala. Hausturak gainditzeko, distantziak apurtzeko, elkarlanerako eta adostasunerako ahalmena da bizikidetza. Justizia soziala, eskubideak eta askatasunak bermatzeko ardura eta konpromisoa.

Elkarrizketa, berradiskidetze eta eraldatze prozesu bat da bizikidetza. Parte hartzailea, inklusiboa.



### Urnietako bizikidetza taldea

**AMAIA VAQUERO** BAKE ETA BIZIKIDETZA TALDEA

Bere garaian Udalak antolatutako bake eta bizikidetza jardunaldietan parte hartu nuen, eta bertan ikusi nuen giroa atsegina egin zitzaidan. Ez nuen oso garbi, baina jende gutxi zegoela ikusita, herritarren taldean parte hartzeko pausoa eman nuen. Elkarbizitza lantzea garrantzia handikoa dela deritzot, gizarte modura dugun erronka da. Ama naizen aldetik, seme-alabei elkarbizitzan sakontzea zor diegula uste dut. Memoria lantzea ikasgaia da, zer errepikatu behar ez den barneratzeko. Ondorengo belaunaldiek zer gertatu zen ikasi beharko lukete, beti ere aurrera begirako ikuspegiarekin.


Entzun, errespetatu, elkar begiratu..., Urnietako foroa oso interesgarria izaten ari da, bakoitzak bere ikuspegia azaltzen duelako. Ez dugu beharbada erabateko adostasuna lortuko, bakoitzak bere ideiak dituelako, baina behintzat lasai aritzeko aukera dago. Lehen, ordea, horrelako ariketei beldurra genien. Eta gizarteko kide garen aldetik, zerbait egin beharra dago. Behar-beharrezkoa da. Ez da politika mailako kontua, gizarte mailakoa baizik.



Puska biltzea



Kalderero txikiak



Kaldereroen kalejira

## Inauterien atariko bideo sorta ikusgai



Kaldereroen adierazpena



Santa Ageda: Eskertza ekitaldia



Santa Ageda: Urnieta

**AIURRI.EUS**

**ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA**

## KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

MAIDER LAINEZ ANDOAINGO PSE-EEREN IDAZKARI NAGUSIA

## In memoriam

Joseba Pagazaurtundua. Ezkondua, 9 eta 14 urteko bi semeen aita. Udal langilea, Udaltzaingoaren burua, lagun sozialista, "Basta ya"-ko kidea eta laguna. Genero indarkeriaren aurka egindako lana eta bere borroka nekazina askatasunaren alde nabarmentzekoak izan ziren. Hori guztiagatik, Joseba, gaur duela 15 urte ETako terrorista batzuk erail zintuzten. Esplikaezina da.

Egia da, ETak bere borroka armatua behin-betiko amaitutzat eman zuenetik gure egunerokotasunean gauza asko aldatu direla. Josebak eta beste askok hainbeste bilatutako askatasun hori, azkenean, lortu dugu. Orain, bakean eta askatasunean bizi gara.

Baina basakeriako eta zentzugabekeriako urte asko izan ziren, urte gehiegi. Halere, askok azkarregi orrialdea pasa nahi dutela sentitzen dugu; gertatutakoa ahaztu nahi dute edo, okerrago, ezer gertatu ez balitz bezala jokatu nahi dute.

Eta jarrera horren kontra agertzen naiz. Gorka Landaburuk dioen bezala: "Orrialdea pasa, bai, baina zer dioen irakurri eta gero".

Beste era batera egiteari uko egiten diot.

Gure seme-alabentzat eta gure bilobentzat Euskadi tolerantia, anitza, librea eta bakean nahi dut. Hori lortzeko, gaur eguneko belaunaldiak eta hurrengoek orain dela gutxi arte gure plazetan eta auzoetan zer gertatzen zen ezagutu eta jakin behar dute: Euskadin eta Andoainen ere, batzuek ezin genuela askatasun osoz kalean ibili, zenbait tokietatik ezin genuela pasa eta ETak

## EZIN IZANGO DUGU ETORKIZUN HOBEA ERAIKI, HEMEN BIZI IZAN DUGUNA AHAZTEN BADUGU

pertsona asko ideia desberdinak izateagatik edo askatasuna defendatzeagatik erail zituela.

Iraganeko akatsak berriro errepika ez ditzagun, belaunaldi berriei bai bortizkeriaren zentzugabekeria, bizikidetasuna, aniztasuna,

errespetua eta tolerantzia defendatzen erakutsi behar dizkiegu.

Ezin izango dugulako etorkizun hobea eraiki, hemen bizi izan duguna ahazten badugu. Bai, bizikidetasunean lan egiten jarrai dezagun, baina memoria landuz eta gertatutakoa gogoratu.

Neguk aurrera doaz, baina, Joseba, beti gogoratuko zaitugu, gure memorian eta bihotzean bizi zarelako.

Askatasunagatik!

## POSTONTZIA

## Gazte enplegua sustatzeko Hazilan egitasmoa

## BETERRI-BURUNTZAKO UDALAK

Garapenek, Garapen Agentzien Euskal Elkarte proiektuko kide diren 20 garapen agentziekin batera, eta Eusko Jaurlaritzarekin eta Europako Gizarte Funtzarekin (%50eko finantziatioarekin) elkarlanean, Hazilan laneratzeko proiektua jarri zuen abian 2016-2021 aldirian.

Langabezia-egoeran dauden 20 urtetik 44 urtera bitarteko gazte kualifikatuak (unibertsitateko edo LHko goi-mailako zikloko titulazioa) laneratzeko proiektua da Hazilan. Kolektibo horrek, prestakuntza-maila handia badu ere, zailtasun handiak ditu lan-merkatuan sartzeko, bere lanbide-profilari lotutako esperientziarik ez duelako batetik, eta enpresek eskatutako zeharkako

kompetentzia eta gaitasunen jabe ez delako bestetik. Hazilaren helburu nagusia laneratzeko da, laguntza pertsonalizatuaren bitartez.

Hazilanez metodologia berritzailea proposatzen du, ibilbide pertsonalizatuan oinarritua, eta parte-hartzaileen ezaugarrietara eta enpresek eskatutako proiektu profesionalek egokitua. Lehen fase batean, pertsonen aktibazioa bilatzen da, eta jarraian, proiektuaren arabera, ikasketa espezializatuak egiten dira, praktikak gauzatzen dira, edo enpresa-proiektuetan parte hartzen da, honako ezaugarri hauekin:

Aktibatu: motibatzea, inplikatzeko eta aktibatzea. Pertsonengan motibazioa, erantzukizuna, helburuak

kudeatzeko gaitasuna, komunikazioa eta abar sustatzea du xedetzat.

Kokatu: praktikak enpresan. Praktikak egiteko hiru hilabetetik sei hilabetera bitarteko egonaldiak gauzatu behar dira enpresetan, lanpostua eta lanbide-profila kontuan hartuta. Enpresak gidatzen du prozesu osoa, eta Hazilan proiektuko teknikari batek egiten du jarraipena. Programan parte hartu nahi duten enpresa edo gazte guztiak hazilan.eus webgunean lor dezakete nahi duten informazio guztia. Baita Andoainen ere: -943 304 221. -hazilan@andoain.eus. -Urigain etxea. La Salle etorbidea, 6. 20140 Andoain. Izen emateko epea otsailaren 21a arte zabalik.

## POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus



**Aiurri eskuragarri:**  
Ebez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**  
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain  
Tel.: 943 300 732  
Faxa: 943 300 731  
andoain@aiurri.eus  
www.aiurri.eus

**Zuzendaria:** Jon Ander Ubeda.  
**Erredaktoreak:**  
Xabier Lasa, Olatz Lasa.  
**Maketzaileak:** Maddi Trutxuelo.  
**Kudeaketa, harpidetak:**  
Garbiñe Ugartemendia.  
idazkaritza@aiurri.eus  
**Publizitatea:** Fer Irazu.  
publizitatea@aiurri.eus  
**Banatzaleak:** Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).  
**Diseinua:** Goiena Komunikazio Taldea  
**Zorion agurrak, merkatu txikia:**  
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus  
Whatsapp: 619 163 537  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04.  
**ISSN:** 1698-4870.  
**Tirada:** 4.000 ale.  
**Inprimategia:** Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ ALJATUAK: TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA Urnietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:

GIPIZKOAKO Foru Aldundia

ZIURTAGIRIA: BABESLEAK: AIURRIKO harpidedunak ezinbestekoak dira.

## PROTAGONISTA

# “Lanak martxa onean doaz, aurreikusitako epeak betez”

**PEDRO UNANUE** ANDOAINGO UDALEKO ZERBITZUAK LANSAILLEKO ZINEGOTZIA

## Erredakzioa ANDOAIN

Urtarrilaren 8an Juan Bautista Erro eta Kale Nagusiaren zati bat ixteari ekin zioten, azpiegiturak berritzeko lanei ekiteko. Lauzpabost asteko epea iragarri zuten, lehen lanak amaitzeko. Aiurrik lanen egoerari buruzko galderak luzatu dizkio zinegotzi arduradunari, hilabetea bete denean.

### Kale Nagusiko obran, aurreikusitakoa betetzen ari al da?

Martxa onean doaz lanak, aurreikusitako epe guztiak betetzen. Lehen fase honetan Juan Bautista Erro kaletik Doktor Huitzi kaleko sarrera bitarteko tartea egiten ari gara.

### Zein epe darabilzue lehen zatia amaitzeko?

Aste honetan bertan emango diogu amaiera. Asfaltatze lanak falta dira egiteko, nahiz eta eguraldiak sortutako arazoengatik itxiera fasea pixka bat luza daitekeen.



Pedro Unanue Zerbitzuak lansaileko zinegotzia, Kale Nagusian. AIURRI

### Zailtasunik edo ezustekorik izan al da lehen aste hauetan?

Ez dugu aparteko zailtasunik izan, oraingoz. Aurretik egindako lanean eta proiektuan jasotakoa betetzen ari da.

### Eta hura amaituta, zein izango da hurrengo pausoa? Non jarraituko du obrak?

Hurrengo fasea Doktor Huitzi kaleko sarretatik Agustin de Leitzara bitarte izango da. Fase honetan Pio Baroja

kaleko tartea bat ere berrituko da. Pio Baroja eta Rikardo Arregi kaleekin bat egiten duen tartea horretan. Fase hori burutzeko tartea bospasei astetako izango da. Azken fasean, eraberritze lanak Goikoplazaraino iritsiko dira. **Trafikoari dagokionez, auto gidariak zer moduz erantzuten ari dira?**

Oso jarrera ona erakusten ari dira. Ez da arazorik egon eta prestatu den bide alternatiboarekin ondo moldatzen ari gara. Espero dugu beste bi faseetan erantzuna bera izatea.

### Ur hoditeri zaharkitua berritzea da xede nagusia. Dagoeneko ur galera nabarmen jaitsi da...

Bai, azken bi urte eta erdi hauetan esku hartze handia izan da. Ikusgarritasun handiko obra handiez gain, ur galera txikiak antzeman eta konpondu ditugu. Ur presioa jaisteko aparailuak ere jarri ditugu, matxurak saihesteko lagungarri direnak. Lan eskerga egin dugu, eta emaitza jasotzen ari gara. Matxurak egon badaude, eta egongo dira, baina gero eta gutxiago izango dira. Ibiurretik datorren ura geroz eta gutxiago galtzen da lurrazpian. Horrek urte osoko fakturan aurrezki ekonomikoak dakar berarekin.

## HAU BE BADUGU!

## Andoaingo talentua NASAN



Hainbat hedabidetan protagonista izan da, besteak beste, Euskadi irratian. Joan zen urtarrilaren 9an Manu Etxezortu herrikideak elkarrizketatu zuen.

## Eguraldi mapari etengabe begira



@urbixxx bereziki, baina baita @MeteoAndoain eta @urnietameteo erabiltzaileak ere, elur kontuekin aritu dira azken egunotan. Desio dutela argi erakutsi dute, bereziki, lehenengoak. Inguruan elurra ikus zitekeen egun hauetan. Andoaingo Udalak alerta laranjaren berri eman zuen, bereziki asteazkenerako eta ostegunerako. Ikusi behar eguraldia, asteburuari begira. Hotza, ziur.

## Ormaetxeari elkarrizketa

Joan zen astean, "Protagonista" atalean, Ormaetxeak kalderero jaiaren berri eman zuen. Instagram eta Facebook sareetan Kaldereroen erreginaren albisteak irismen handia izan du. Sorpresa izango zela iragarri zuen, Kaldereroen aurretik egindako elkarrizketan. Eta hitza bete zuten, nola gainera! Puigdemont bera 'ekarri' baitzuten Goikoplazara.

## ITURRI ONETIK

## Biktimen arretarako bulegoa

Andoaingo Udalak eta Oroituz, Andoainen elkarateak iraganeko lekukotzak jasotzeko hitzarmena sinatu zuten. Horren bitartez, Basteroko bilera gelan arreta bulegoa ipini dute, nahi duenak bere lekukotza eman dezan. Otsailean zehar zabalik izango da, osteguneroko eta ostiralero. Ostegunetan, arratsaldeko 17:00etatik 19:30era. Ostiraletan, 10:30etik 13:00etara. Dagoeneko herritar bat baino gehiago hurbildu da informazio bila, eta horietako batzuk euren lekukotza eman dute.

## GORA ETA BEHERA



## Inauteri giroko erakusleihoak, merkatalgunetan

Andoaingo hainbat merkatalgunek inauteriarekin bat egin dute, erakusleihoetan dekorazio berezia ipiniz. Inauterien atariko egunetan zer datorkigun gogoraraztearekin batera, mozarro eta festa giroan murgiltzen gaitu. Ez dira soilik karrozak, txarangak eta konpartsak. Erakusleihoak apaintzean inauteria bera indartzen da. Txalogarria, hartzen duten lana ikusita.



# Inauteriak Andoainen, ostegunetik igandera

Otsaila gaizto samar dator, eguraldiari dagokionez. Kaldereroen etorrera euripean igaro zen, eta aste hasiera hotza eta bustia izan da. Asteburuari begira, aterkiak beharrezko izango dira goizean. Arratsalderako altxako duela dirudi



Argazkiko konpartsa eguraldi txarrari aurre egiteko guztiz aproposa zen. **AIURRI**

## Erredakzioa **AIURRI**

Inauterietako mozerro desfilearen azken hehetasunak lotu zituzten joan zen astelehenean egin zuten bileran. Bereziki, desfilatzeko garaian konpartsek jarraitu behar duten ordena.

Egun handia gerturatzan ari da, eta hortxe ibiliko dira konpartsa eta mozerroei azken uki-tuak ematen. Larunbatekoa haur, gazte eta helduek inauteria batera ospatzen duten eguna da. Aurten, bestalde, ospakizunare-

kin bat egin dute urtean zehar kaleak girotzen dituzten hainbat kultur eragilek: Olagain txistulariak, Alberto Agirre abesbatza, Kantu kalejira, Soinuak, Udal musika eskolako ikasleak, erraldoi eta buruhandiak...

## EGITARRAUA

### OTSAILAK 8

#### OSTEGUNA

**15:00** Haurren ospakizunaren hasiera, ikastetxeetan.

**15:15** Ikasleen kalejira Basterotik Zumea kalera eta handik Goikoplazara. Txarangak eta dultzaineroek lagunduta. Euriarekin, Ondarretako jolastokian.

**16:15** Dantza jaialdia Goikoplazan. Eguraldi txarrarekin, Ondarretan.

**17:15-20:00** Beldurrezko etxea Gazte lokalean.

**18:00** Maskara Lehiaketaren sari-banaketa ekitaldia Urigainen.

**19:00** Pintxo pote musikala Goikoplazatik Kale Nagusira: Olagain txistulariak, Alberto Agirre Abesbatza, Kantu kalejira eta Udal musika eskolako ikasleak.

### OTSAILAK 9

#### OSTIRALA

**17:15** Mozerro festa Gazte Lokalean. Askari berezia gazte kuadrila guztientzat. Mozerrotuta agertzeko deia luzatu dute.

**18:00** Udal musika eskolaren Basetxean emanaldia Basteron.

**18:00-19:30** Maskara Lehiaketaren erakusketa Urigainen.

### OTSAILAK 10

#### LARUNBATA

**10:30-11:30** Erakusketa Urigainen.

**11:30** Buruhandi eta erraldoiak.

**12:00** Inauteri desfilea.

**12:00-13:15** Soinuak eskolako kalejira. Euriarekin, Ondarretan.

**17:00-20:30** Inauteri desfilea Txitibar plazatik Goikoplazara.

**18:00-19:30** Erakusketa Urigainen.

**23:00-03:00** DJ festa Nafarroa plazan.

### OTSAILAK 11

#### IGANDEA

**12:00** Inauteri desfilea.

**17:30** Haur festa Goikoplazan: Reziklator ikuskizuna. Eguraldi txarrarekin, Ondarretan.

## Kalderero txikien ospakizuna



Kalderero txikiak Ondarreta ikastetxeko jolastokian. **AIURRI**

**Eguraldi txarra** Aurtengoan ezin izan zuten herrigunean zehar kalejirarik egin, euria gogotik ari zuelako. Halaber, Ondarreta ikastetxeko ikasleek jolastokian bertan kanpaldia antolatu eta ospakizuna egin zuten. Herrira irten gabe, tradizioari eustea lortu zuten.



Eguraldi txarra izanagatik ere, umoreari eutsi zioten. **AIURRI**

**Ospakizun polita** Ondarreta ikastetxeko komunitatea osatzen duten irakasle, ikasle eta hainbat gurasok inauterien atariko ospakizunarekin herriari zuzendutako jarduera antolatzen dute. Argazki-bilduma eta bideoa ikusgai dago aiurri.eus webgunean.



Oiartzabal Donostian omendu zuten, larunbatean.

**Joxe Mari Oiartzabal** Ostiral arratsaldean, txikienean ospakizunean parte hartu zuen. Biharamunean, ordea, Andoainen huts egin zuen Donostiako Gros auzoan eskaini zioten omenaldian egon behar zuelako. Hango kaldereroek urte luzez egindako lana eskertu nahi izan zioten.

# Kaldereroen etorrera, 'ezusteko' bisitariarekin

"Aurrera dezaket, balkoian, azken bi urtetan oso entzuna izaten ari den pertsonaia batek protagonismoa hartuko duela", Ormaetxeak aurreko Aiurrin egin zuen iragarpena. Puigdemont 'ekarri' zuten Andoainera, guzti-guztiak aho bete hortz utziz



Giro hotza eta bustia Goikoplazan, Kaldereroen etorreran. AIURRI

**Xabier Lasa** ANDOAIN

Kaldereroak larunbat arratsaldean Ontza elkartetik abiatu ziren, Gora Kaletxiki txarangaren atzetik kalejiran. Lehen bisitaldia, ohi bezala, Zaharren egoitzara egin zuten. Ama Kandida etorbideko eraikinean bizi direnei hainbat pieza eskaini eta gero, Goikoplazarako bidea hartu zuten. Euripean, eta negu beteko giroan, kanpalekua ipini zuten Goikoplazan. Bi erregin iragarrita zeuden kaldereroen karrozan, baina horietako baten atzean ezusteko protagonista ezkututzen zen. Mozorroaren gainetik bigarren mozorroa zeraman. Sorpresa iragarrita zuten, baina egia esan ezustekoa galanta izan zen. Bi erregin sartu ziren udaletxean, eta udaletzeko balkoira agertu zen erregin horietakoa Carles Puigdemont presidentea zen!

Nonbait Puigdemontek Belgikako txokolate erreserba guztiak

jan ditu, eta horrexegatik handik kanporatu egin zuten. Balkoira atera, eta bertatik Kataluniakoa ez doala aurrera aitortu zuen. Eta nazio proiektu berria behar duela erantsi. Andoaingo biztanle hungariarrei luzatu zien mezua, segidan: "Nahikoa da Andoaingo Carrereren erregimenarekin, aske bizitzeko eskubidea daukazu! Gora Hungaria txikia".

**Bertsoa**

Puigdemont desagertu eta kaldereroen erreginak bertsoa bota zuten:

*Nahiz orain arte Andoainekin mantendu dugun ituna, argi ta garbi entzun duzue Puigdemontek esan duna. Aske ta libre eraiki nahi deu datorren etorkizuna, zartagi gogor eragitea gaur zuen eginkizuna. Hungariarrok lortu nahi dugu Andoaindik askatasuna.*

Diskurtoak amaitu eta berehala euria gogotik botatzen hasi zen. Zoritxarrez, gainera, kaldereroek ez zuten kalejira osoan bakerik izan.

**Ubitarteko animatzaile bilakatu zirenekoa**

Kale Nagusian behera abiatu eta Ubitarteko harmailetan babesa topatu zuten. Zelaian jokoan zegoen jubenil mailako partida, Euskaldunako eta Zizurkilgo Danena taldeen artekoa. Kaldereroen zartagiak, txarangaren doinu hotsek lagunduta, giro hotza berotzen hasi ziren. Eta, zinez, Euskaldunakoen mesederako izan zen. Izan ere, zarata eta animo horiei esker, bi gol bata bestearen segidan sartu zituzten. Euriak kaldereroak makurrarazi zituen, baina Euskaldunak partida 2-0 irabazi zuen. Eta, gainera, igoerako ligaskan lidergotza sendotu zuen. Gaitzerdi!



'Carles Puigdemont' eta Kaldereroen erregina, Udaletzeko batzar aretoan. AIURRI



Kaldereroen konpartsaren etorkizuna gazteen esku dago. AIURRI



Juan Bautista bataiatzailean hainbat pieza eskaini zituen Gora Kaletxikik. AIURRI



Aipamen berezia Ondarreta ikastetxeko gurasoei, ez baitute hutsik egiten. AIURRI

## EGITARAUJA

## OTSAILAK 8

## OSTEGUNA

**14:30-16:30** Inauterien festa, Egape Ikastolako frontoian.

## OTSAILAK 9

## OSTIRALA

**15:30** Inauterien festa, Presentacion de Maria ikastetxeko jolastokian. Eguraldi txarrarekin, frontoian.

**17:00-19:00** Familientzako makillaje tailerra, Ludotekan.

## OTSAILAK 10

## LARUNBATA

**12:00** Poteoa.

**14:30** Herri bazkaria.

**16:30** Topagunea San Juan plazan eta desfilea Idiazabal kalean.

**16:30-00:00** Trafiko mozketak Idiazabal kalean.

**18:00** Jaia Salesiar ikastetxean.

## OTSAILAK 11

## IGANDEA

**17:00** Mozorro lehiaketa, desfilea, batukada, txokolatada eta pintxoak Etxeberri plazan.

# Inauteria igandera arte luzatuko dute Urnietan

Ostegunean eta ostiralean ikastetxe bakoitzak bere ospakizuna egingo du, eta larunbatean mozorro desfilea egingo dute San Juan plazatik Idiazabal kaleraino. Igande arratsaldean, bestalde, ospakizuna iragarrita dago Etxeberri plazan



Buruntzantz taldeak kalejira eskainiko du igandean, Etxeberri plazako ospakizunean. AIURRI

## Erredakzioa URNIETA


Ospakizun bakarra ez, bikoitza izango da aurtengo inauterietan. Mozorro desfilea, txaranga eta gazte bazkaria larunbatean izango dira. Huraxe izan da, orain arte Urnietako inauterietako ospakizun bakarra. Aurtengoan, behintzat, inauteriari bigarren

eguna erantsi beharko zaio. Izan ere, sortu berri den Etxeberri plaza auzo elkarteak 'Etxeberriko inauteri festa' antolatu baitu. Estrainekoz egiten den festa 17:00etan hasiko da, eta jaia iragartzeko afitxan jarduera ugari iragarri dituzte: Desfilea, txokolate jatea, txistor jatea,

mozorro lehiaketa eta musika saioa. Ospakizun horretan parte hartuko du Buruntzantz batukada taldeak. Larunbatean ezinezkoa zaie parte hartzea, eta igandean arituko dira.

Euria eginez gero, igandeko ospakizuna Egape ikastolako jolastoki estalian egingo dute.

## Haur antzerkia Lekaion



Urnietako antzerkigile gazteek 'Sorginaztien festa' emanaldia eskaini zuten jendaurrean, joan zen larunbat arratsaldean. Joxe Mari Berasategiren zuzendaritzapean, istorio eta abentura txiki ugari eskaini zituzten. Ikusleek txalo artean agurtu zituzten.

## Haur parkea itxita



Etxeberriko parkea itxita dago, asteartez geroztik. Haur jolasen eremuan konponketa batzuk egiten ari dira eta lanek irau bitartean parkea itxita egongo da. Lanek astebete inguruko iraupena izatea aurreikusi du Udalak.

**XAUXAR**  
TABERNA • URNIETA

Goza dezagun inauteriaz, herrian bertan!

Idiazabal 26, behea - URNIETA

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

**ORAIN GIPUZKOA**



# Omenalditxoa Ontzan, Santa Agedako lagunei

25 urte bete dira Manuel Larramendi Kultur Bazkuna Santa Agedako kantu erronda antolatzen hasi zenetik. Erronda amaituta, afalostean, Bazkunak omenalditxoa eskaini zien hainbat lagunei. “Santa Agedaren lagun” izendatu zituen, esker onez



Santa Agedaren lagunak: Lekuona, Erkizia, Beraza, Lizarribar, Erkizia, Loidi, Agirre, Cencillo eta Ontza elkarteak. AIURRI

## Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Ramon Beraza zuzendaria nabarmendu zuten lehenik. Bazkuneko lehendakari Jon Unanueren hitzetan “urtero-urtero,

hutsik egin gabe, abesbatza zuzendu eta entsegu guztietan izan delako”. Unanuek Berazaren eskuzabaltasuna azpimarratu nahi izan zuen. Pozik eta apur

bat lotsatuta, esker ona adierazi zuen Berazak: “Gustura etorri izan naiz beti, eta eskaera jasotzen segitzen badut, berriz ere etorriko naiz”. Santa Agedaren



Beraza, Cencillo, Unanue eta hainbat kantari Doktor Huitzi kalean. AIURRI



Andoni Arribillaga eta Ane Jalon erronda iragartzen aritu ziren. AIURRI

lagun izendatu zituzten ere urtez urte lankide izan dituzten bi musikari: Susana Cencillo eta Josu Lekuona. Unanueren hitzetan “Errondan musikari asko izan ditugu gure artean, baina Susana eta Josu bereziki ia urtero-urtero gurekin izan ditugu”. Garbiñe Agirre ere go-goan hartu zuten, 25 urte horietan antolaketa lanetan buru-

belarri jarduteagatik. Ezin aipatu gabe utzi sukaldariak eta Ontza elkarte bera. Joseba eta Miren Erkizia, Fermin Loidi eta Jabier Lizarribarri ere plaka bana oparitu zieten. Baita Ontza elkarteari ere. Joseba Erkiziak esker ona adierazi eta elkartearen ateak zabalik izango dituztela adierazi zien. Amaiera polita, urteurren borobilean.

## Santa Agedako kantu erronda Urnietan



**David Roscoren zuzendaritzapean** Lekaion azken prestaketa lanak egin eta gero, lehen saioa San Juan plazan eskaini zuten.



**Kantu taldea** Aspaldiko ohitura zaharra biziberritzeko hogeitaz laguneko taldea abiatu zen San Juan plazatik Denda Berrira, eta handik kalejiran herrigunera.



**Trikitilariak** Idoia Gorroño, Uxue Mariñelarena eta Aintzane Elozegi musikariek trikiti doinuekin kalejira girotu zuten.



Udalak Gobernu Kanpoko Erakundeekin lankidetzaren hitzarmena sinatu zuen, joan zen ostiralean. AIURRI

# GKEen lana munduan zehar

Andoaingo Udalak gobernu kanpoko hainbat erakunderi diru-laguntza eman die euren proiektuetara bideratzeko. Aurkeztutako ekimenen artean daude eskolak eraikitzea, gaixoak artatzea edota emakumeen ahalduntzea sustatzea

## Erredakzioa ANDOAIN

Joan zen ostiralean bildu ziren Andoaingo Udala eta Gobernu Kanpoko Erakundeak aurtengo proiektuen berri emateko. Hasi baino lehen, Ana Carrere alkateak eskerrak eman nahi izan zizkien egiten ari diren bolondres lanagatik. Udalaren diru-laguntza txikia izan arren, helburu bera izaten jarraitzea garrantzitsutzat jo zuen.

Ekitaldian egitasmo guztien aurkezpena egin zuten. Hona lagin modukoa, mundu osoko egitasmoak biltzen dituen.

Herrialde batzuetan diru gutxirekin laguntza handia eman daiteke. Hori erakusten ari da Chiapas Enea fundazioa. Mexikoko Chiapas estatuko emakume indigenekin egiten dute lan, eta iaz eta orain bi urte lortutako diruarekin hiru hektareatako lursaila erosi dute etxola

## Emakumeak eta neskatoak ardatz

Hudet barrutiko (Etiopia, Somaliarekin mugan) emakume eta neskatoen bizi baldintzak hobetzea da Gipuzkoako Medicus Mundiren helburua. Beraien bizi esperantza 33 urtekoa da. Horretarako, ur putzu bat hobetuko dute, 11.000 pertsonen bizimodua hobetuz, eta emakumeei komunitatean parte hartzeko denbora gehiago eskainiz. Bestetik, kulero eta konpresez osatutako 600 garbitasun kit banatuko dituzte neskek hilekoa dutenean eskolara joan daitezen.

Nikaraguan 14-16 urte bitarteko emakumeak ama izan ohi dira, baldintza oso txiroetan. Honek izeneko gobernu kanpoko erakundeak medikua zerbitzua eskainiko dieten lekura eramaten dituzte, erditu baino hamabost egun lehenago eta erditu osteko hamabost egunetan zainduta egon daitezten. Gainera, sexualitateari eta generoari buruzko formakuntza eskaintzen diete emakumei, ahalduntzearen ideian sakondu eta praktikan jar dezaten.

Buruko gaixotasun edota bestelako ezintasunak dituzten emakumeak gizarteratzea da Kalkulta Ondoan elkartearen helburua. Etxetik bota eta kalean bizi diren emakumeak dira. Emakumeekin terapia okupazionala lantzen da, baratzean lan eginez, beti ere feminismoaren balioetan sakonduz.

turistikoak eta ikasgelak eraikitzeko.

Deradein fundazioak Irisabako (Kenia) haurrei hezkuntzarako gunea eskaintzea du helburu, ikasteaz gain, gurasoak fabriketan lanean dauden bitartean babespean egoteko. Lanera joateko gurasoek orduak egiten dituzte oinez, autobusean gatatuko luketen dirua aurreztea-rraren. Eskola ez balitz egongo, haur horiek kalean egongo lirakeke egun osoan. Bestetik, hezkuntza seme-alabentzat inbertsioa dela erakutsi nahi diete haur horien gurasoei.

Mozambikoko probintzia den Inhambane hiriburuan, ikusmen arazoak sendatzeko aukera eskaintzea da Munduko Begiak fundazioaren helburua. Itsua den pertsonak neskatila edo mutiko bat izan ohi du ondoan laguntzeko, eskolara joateari utziz. Sendatzeko nahikoa bitarteko eta formazio eskaintzea da fundazioaren lana, eta baita emakumea lan munduan txertatzea ere.

Ruandako emakumeen %85a baino gehiago nekazal girokoa da. Behar Bidasoa fundazioak, kualifikatutako agronomoen laguntzaz, emakume horiek lurra lantzen ikasteko lursailak erosi dituzte, formakuntza eman, eta beren produktuak ekoiztu ahal izateko. Helburua bikoitza da: herritarrentzako janaria lortzea, eta lurra elikatze-ongarria lortzea. Modu horretan, emakumeak gizartearen eta familian duen estatusa igo nahi da. Emakumeen kooperatiba bat ere sortu dute, eta egun ehun emakumez osatuta dago.

Libanon babesaren hartu duten siriar eta irakiarren gizarteratzea sustatzea da Proyde-Proega fundazioaren helburua, batez ere, emakumei erreparatuz. Elkar-tekak errefuxiatu horien seme-alabak bertako hezkuntza sisteman sartzeko prestatzen ditu. Siriako gatazkak eragin du errefuxiatuen talde handi bat Libanora joatea; eta irakiarrek ere bertara joan dira.

Bikarte elkarteak pobrezia egoeran dauden errusiar eta bielorrusiar gazteak aldi baterako Euskadiko familietara ekartzeko helburua du. Bertan dauden denbora (udan eta gabonetan, bereziki) dituzten osasun arazoak sendatzeko baliatzen dute, eta baita hemengo kultura ezagutzeko ere.

## Hemeretzi egitasmo

la hogeit hamar egitasmo ezberdinek euren proiektuak garatzeko diru-laguntza jaso dute, Andoaingo Udalaren eskutik. Diru-laguntza horiei esker, garapen bidean dauden herrialdeetan bizi diren hainbat pertsonen laguntza iritsiko zaie. Hona hemen fundazioen eta proiektuak garatuko den herrialdearen zerrenda:

1. Mundu Solidarioa Helburu (ams-msh). Nikaragua.
2. Asociación Bikarte. Errusia/Bielorrusia.
3. BLB-ACP. Senegal.
4. Behar Bidasoa ONG. Ruanda.
5. Kalkuta Ondoan ONG. India.
6. Chiapas Enea. Mexiko.
7. Doa (Denok Osasunaren Alde). Bolivia.
8. Deradein Fundazioa. Kenia.
9. Fundacion Ayuda. Solidaria Hijas de Jesus-FASFI. Dominikar Errepublika.
10. Munduko Begiak. Mozambike.
11. Gipuzkoako Oscar Romero. El Salvador.
12. Herriak Elkarlanean. Benin.
13. Lankidetzarako Ingeniaritza. Beningo Errepublika.
14. Medicus Mundi Gipuzkoa. Etiopia.
15. Mugen Gainetik. Guatemala.
16. ONG Honek. Nikaragua.
17. ONG Taupadak. Bolivia.
18. Proyde-Proega Fundazioa. Libano.
19. Serso San Viator de Euskal Herria. Burkina Faso.



Udal ordezkariak, gizarte eragileekin batera, Fiare Banca Eticaren eta Udalaren arteko hitzarmenaren sinadura ekitaldian. AIURRI

## Behar gorria arintzeko mikroredituak

Diru kopuru txikiko maileguak dira, dirua itzultzea errazago eta eskuragarriago egiten dutenak. Otsailaren 15etik aurrera egin daiteke eskaera. Gutxienez 600 euroko maileguak emango dituzte, eta gehienez 2.500 eurokoak

### Erredakzioa ANDOAIN

Andoingo Udalak eta Fiare Elkarteak mikroredituen inguruko hitzarmena sinatu dute, langabezian, pobrezian edota gizarte bazterkerian aurki daitezken herritarren gaitzespena. Oinarrizko beharrak asetzeko diru-laguntzik jasotzen ez duten herritarrei finantzabidea ematea da mikroredituen helburu nagusia. Andoingo Udalak Fiare Banku Etikoa diruz lagunduko du, diru hori kudeatu eta beharra duten herritarren zerbitzura jartzeko. Mikroredituen bitartez berme gisa jarri ohi diren baldintzak arindu egingo dira, dirua itzultzea errazago eta eskuragarriago egingez.

### Mailegua eskuratzeko baldintzak

Gutxienez 600 euroko maileguak emango dira, eta gehienez 2.500 eurokoak. Mailegua itzultzeko 24 hilabeteko epea dute herritarrek, hilabetero diru kopuru jakin bat ordainuz, beti ere

euren diru-iturrien arabera kalkulatu. Eskatzaileak beregain hartu dezakeen diru kopurua eskura dezake, bere zorpetze ratioa %35 baino handiagoa izan ez dadin.

Eskatzailearen finantza ahalmena kalkulatu ahal izateko, beste finantza erakunde batzuekiko amortizatze dituen kredituen hileroko kuota ere zen-

batuko da. Mailegua jasoz gero, onuradunak gastua egin izanaren faktura edo justifika dezakeen beste dokumenturen bat aurkeztu beharko du.

Otsailaren 15etik aurrera egin daitezke eskaerak Ataria Udalaren arreta zerbitzuan, Fiare Elkartearen, Caritasen edota Kaleratzeak Stop Desahucios elkarteetan.

### Eskatzaileen profila

Langabezian, pobrezian edo gizarte bazterkerian aurkitzen diren herritarrek izan daitezke mikroredituen eskatzaile. Ondorengo baldintzak bete behar dituzte:

- Gehienezko diru-sarrera. Diru-sarrerak kalkulatzeko gutxienezko soldata eta familia osatzen duten pertsona kopurua hartuko dira aintzat.
- Dagozkien agirien bidez egiaztatzea egin beharreko gastua ezin dela gizarte laguntzen bidez finantziatu, edo ez dagoela jasota halakotzat.
- Andoainen erroldatuta egotea gutxienez eskaera egin baino urtebete lehenago.
- Zorrik ez edukitzea Andoingo Udalarekin.

## Integrazioan sakontzeko lankidetzak hitzarmena

Udalaren, Atzegiren eta Gureak elkartearen artean, "Pauso berriak" izeneko hitzarmena sinatu dute



Aihotz Albisu, Ana Carrere eta Gureak eta Atzegiko ordezkariak. AIURRI

Andoingo Udalak Gureak eta Atzegi erakundeekin duen lankidetzak hitzarmena berri du. Azken zortzi urteetan, hitzarmen horri esker Aihotz Albisu Andoingo Udaletxeko langilea da. Estimatu da bere lana Udala langile eta herrikide askoren artean. Udala pozarren dago, ohar bidez adierazi bezala: "Badakigu Aihotzek gauza asko ikasi dituela, gurekin egon den urte hauetan guztietan. Lan dinamikak arduratsu izaten erakutsi dio". Lan ugari eta ezberdinak egiten ditu: "Administra-

zioko lanetan laguntzen du, gutunak sobreetan sartu, udaltxeko sail ezberdinetan posta banatzen du, Udaltzainei galdutako objektuak identifikatzen laguntzen die, karpetak antolatzen ditu, Haurreskolan ere haurrei bazkaria banatzen aritzen da". Udaletxeko lanetan murgilduta, lankide bat gehiago da.

Erakundeak, enpresak edota ikastetxeak animatu nahi ditu Udalak proiektu honetara batzera: "Guztiak ateratzen baikara irabazten".



AIURRI

## Guraso presoan aldeko bilkura

Guraso talde batek deituta, otsailaren 2an Juan Inaxio Otaño, Iñaki Igerategi eta Axier Oizartzabalen askatasuna eskatzeko eta euren senitartekoei elkartasuna adierazteko bilkura egin zuten. Bilkurak hilero deitu dituzte, bi lehenak 2012ko otsailaren 21ean atxilotu zituztenetik. Otsailaren 18an aske geratuko dira, 6 urteko kartzela zigorra bete eta gero.

# Aste Santurako plana, Euskaldunarekin

**MENDIZALETASUNA** Martxoaren 29tik apirilaren 2ra bitarte Lugo aldea ezagutzeko ibilbideak prestatu dituzte. Bazkideentzat izen-ematea astelehenean hasiko da, bazkide ez direnentzat datorren otsailaren 19an

**Erredakzioa** ANDOAIN

"Iaz Andaluzia aldera joan ginenean, aurten aldiz Galizara goaz. Jakitun gara eguraldi aldetik Galiziarra joateak duen arriskuaz, baina zeharkatuko ditugun parajeak arriskutik kanpo daude. Errepide estuak zeharkatuko ditugu, hutsik gelditzen ari diren herrixkak, ezinezko diruditen mahastiak mendi magaletan...". Horixe Euskalduna Mendigoizale taldearen proposamena Aste Santurako, martxoaren 29tik apirilaren 2ra luzatuko dena. Hots, Aste Santuko ostegunetik astelehenera bitarte.

Lugo, Seoane do Courel, Vegadeo, Ribadeo, Parada de Sil edota Villaviciosa aldean txangoak eta bisitaldiak egingo dituzte.

Martxoak 30ean, esaterako, Pedrafita do Cabreiro portutik 25 km-tara aurkitzen den Seoane do Courel aldera abiatuko dira. Bertan gidarekin elkartu eta bi ibilbide edukiko dituzte



Seoane do Courel. @XOAN ARCO DA VELLA

aukeratzeko: 12 kilometrokoa, 600 metroko desnibelarekin, eta 20 kilometrokoa, 900 metroko desnibelarekin.

Bazkide direnek 340 euro ordainduko dute, eta bazkide ez direnek 360.

**Izen-ematea**  
Otsailaren 12an, iluntzeko 20:30etik aurrera, bazkide direnek elkartean bertan izena eman ahal izango dute. Bazkide ez direnek, aldiz, astebete beranduago.



Eñaut Esnaola pilotaria. UKE

## Emaitza onak Trinketeko Gipuzkoako Txapelketan

**PILOTA** GRAVNI Torneoa martxoan hasiko da. Jubenilean Aldunberri, eta seniorrean Loitegi eta Esnaola ariko dira

**Erredakzioa** URNIETA

Jubenilean Aldunberri, eta seniorrean Loitegi eta Esnaola izan dira aukeratuak GRAVNI txapelketan aritzeko. Aurkari izango dituzte Bizkaiko, Arabako, Nafarroako, Errioxako eta Iparraldeko pilotariak. Torneoa martxoan hasi, eta maiatzean amaituko da.

**Trinketean bikain**

Jubenil mailan Gari Arizmendik eta Aitor Aldunberrik irabazi zuten Gaztelekuren aurka (40-25). Garaipenari esker finalaurrekoetarako sailkatu dira. Senior

mailan Julen Loitegi eta Eñaut Esnaola izan ziren garaile, Pazgaperen aurka (40-39). 32-39 galtzen joan ostean, Loitegik sakearekin asmatu eta markagailuak gora egin zuen. Azken garaipenarekin, sailkapenaren atarian kokatu dira.

Udaberri Txapelketan eskuz binaka Larrañagak eta Urrak galdu egin zuten Lazkaoren aurka (16-22). Paleta goman Errenteriako taldea garaile Arenaza eta Arozenaren aurka (16-25); eta, pala motzean Juanmartiñenak eta Lujanbiok galdu egin zuten Altxatarraren aurka (23-40).

### KARTELDEGIA: SASKIBALOA, ARETO FUTBOLA

SASKIBALOA	
SENIOR MAILA	
EMAITZAK	
Ganbara-Añorga	64-45
SAILKAPENA	
1 Zarautz	30 puntu
7 Hernani	24 puntu
8 Ganbara	23 puntu
9 Alde-Zaharra B	23 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
19:00	AIB-Ganbara / Lar, 17

KADETE MAILA	
EMAITZAK	
Aloña Mendi-Ganbara	42-41
SAILKAPENA	
1 Goierrri	25 puntu
2 Ganbara	24 puntu
3 Aloña Mendi	23 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
09:00	Ganbara-Mondragon C / Lar, 17

ARETO FUTBOLA	
SENIOR MAILA	
EMAITZAK	
Euskalduna-Tolargi	2-7
SAILKAPENA	
1 Herrikide	33 puntu
3 Tolargi	30 puntu
4 Idiazabal	29 puntu
5 Euskalduna	24 puntu
6 Oiartzun	22 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
20:00	Zaldibi-Euskalduna / Asteazken, 7

ANDOAINGO TXAPELKETA	
EMAITZAK	
Irunberri-Olajauna	6-4
Pausoka-Txalaka	5-9
Akerbeltz-Powerade	18-2
Academia London-C. Extremeño	4-13
Gorostidi-H. Extremeño	2-3
Ekhia-Ganbara	6-2
Lanbroa-Keler	2-3



AIURRI

## Euskalduna-Urnieta, inauteriak ospatu eta gero

**FUTBOLA** Txapelketaren bi heren igarota, liga azken txanpara iritsi dira. 20. jardunaldia jokatu baita asteburu honetan eta, beraz, liga amaitzeko azken hamar partida besterik ez dira geratzen. Euskaldunak aurrealdeari eutsi nahi dio. Allerru eta Deustu taldeen

atzetik hirugarren postuan dago, Oiartzungoen zelaietan 0-6 irabazi eta gero. Urnietarrek azken orduko estuasunak saihesteko urratsa eman zuten aurreko asteburuan, Amasa-Villabonan 0-1 irabazi eta gero. Sailkapenaren erdialdean daude.



Lizeaga helmugara iristen, Lide eta Negu seme-alabak alboan dituela. AINHOA JAUREGI

## Jokin Lizeaga urnietarra Berastegin garaile

**MENDI LASTERKETAK** Otsailaren 4an antolatu zuten Negu Trail lasterketaren lehen edizioa erraz irabazi zuen

### Errredakzioa URNIETA

Berastegin mendia lasterketa berria antolatu dute, eta hor ere Jokin Lizeagak arrastoa utziko du. Bera izan baita lehen edizioko irabazlea. Erraz gailendu zen, helmuga zeharkatzeko azken metroak Lide eta Negu seme-alabak eskutik helduta egin baitzituen. Mendian gora eta behera sufritu eta gero, azken metroetan gozatu hartu zuen. Zaletuek gogoz txalotu zuten Lizeagaren balentria.

16,35 kilometroko ibilbidean, negu giroan, lasterkariak hiru gailur igo behar zituzten: 6,8 kilometroan Urdelar (859m), 8,8 kilometroan San Lorentzo (808m) eta 11,6 kilometroan Ipulñño (900m). Desnibel positiboa 963 metrokoa izan zen.

210 lasterkari helmugaratu ziren Berastegiko plazan, horietatik 18 Andoaingo eta Urnieta-ko lasterkariak.

## Gipuzkoako eskolartekoa

**IGERIKETA** Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan, Buruntzaldea IKT taldekoek lau domina eskuratu dituzte. Azpeitiko igerilekuan Eneko Elizasuk urrezko domina lortu zuen 400 metro lau estiloko proban, bere marka hobetuz. Haritz Gomez eta Julen Azpiroz ere bikain aritu ziren buruz buruko 100 metro tximeletan proban, 4. eta 5. sailkatuz.

### SAILKAPENA

#### NEGU TRAIL LASTERKETA

##### BERASTEGI. 2018-2-4.

Postua	Denbora	Herria
1	Jokin Lizeaga 1:35:54	Urnieta
2	Goar Lopetegi 1:38:13	Ibarra
3	Iñaki Olano 1:38:15	Altzo
13	Unai Martinez 1:43:54	Urnieta
22	Asier Martinez 1:45:12	Urnieta
23	Mikel Legarreta 1:45:14	Urnieta
28	Igor Amantegi 1:45:42	Urnieta
29	Ivan Piñon 1:45:51	Andoain
77	Asier Ipparragirre 1:56:54	Urnieta
80	Elias Eguren 1:57:44	Andoain
116	Bittor Uria 2:03:38	Andoain
122	Egoitz Moreno 2:04:41	Urnieta
130	Andoni Izagirre 2:06:13	Andoain
161	Aritz Iginiz 2:15:32	Andoain
172	Urko Otaño 2:18:02	Andoain
177	Roberto Cillero 2:19:04	Andoain
182	Alberto Brea 2:22:35	Andoain
191	Josu Arabaolaza 2:27:15	Andoain
192	Iñaki Arruti 2:27:15	Andoain
197	Nagore Arizaga 2:30:01	Andoain

## Senior mailako nesken garaipen garrantzitsua

**ESKUBALOIA** Sailkapenean ongi kokatuta jarraitzeko partida garrantzitsua zuten. Partida gogorra eta lehiakorra izan izen, eta azkenean Aiala B taldea garaitu zuten (27-24). Mutilek, bestalde, garaipen erraza lortu zuten etxean Tolosaren aurka jokatu zuten partidari (31-18).

## Lehen fasea amaitzeko azken txanpa

**ARETO FUTBOLA** Andoaingo areto futbol txapelketako taldeek asteburu honetan atseden izango dute. Inauteriak igarota, lehen fasearen azken txanpari ekingo diote. Izan ere, martxoaren 17an bigarren faseari ekingo diote. Sailkapenaren arabera, taldeak bi multzotan banatuko dituzte. Hortik aterako dira final aurrekoak eta finala jokatzeko lau taldeak.

## Otsailaren 18an On Bosko krosaren edizio berria

**LASTERKETA** Goizeko 11:00etan Salesiar ikastetxetik bertatik abiatuko da 7 kilometroko lasterketa. Aurtengoan, gainera, Nordic Walking kirol jardueraren egiten dutenek ere parte hartu ahal izango dute. Izena aldeztetik eman daiteke herriko-sa.eus webgunean. Eta baita, noski, egun berean ere.



BURUNTZALDEA IKT

## KARTELDEGIA

### FUTBOLA

#### PREFERENTE MAILA

##### EMAITZAK

Urnieta-Billabona	1-0
Oiartzun-Euskalduna	0-6

#### ASTEBURUKO PARTIDAK

- Euskalduna-Urnieta / Lar, 17

#### ERREGIONAL MAILA, MUTILAK

##### EMAITZAK

Allerru-Euskalduna	1-2
--------------------	-----

#### ASTEBURUKO PARTIDA

- Euskalduna-Landetxa / Lar, 17

#### ERREGIONAL MAILA, NESKAK

##### EMAITZAK

Anaitasuna-Urnieta	5-1
--------------------	-----

#### ASTEBURUKO PARTIDA

11:30 Urnieta-Hondarribi / Lar, 10

#### KOPA, NESKAK

##### EMAITZAK

Goierri A-Euskalduna	6-1
----------------------	-----

#### ASTEBURUKO PARTIDA

15:30 Euskalduna-Amara Berri / Lar, 17

#### JUBENIL MAILA, MUTILAK

##### IGOERAKO LIGAXKA

##### EMAITZAK

Urnieta A- Beti Ona B	2-1
Euskalduna A-Danena	2-0

#### ASTEBURUKO PARTIDAK

16:30 Danena-Urnieta A / Lar, 10

16:30 Aloña Mendi-Euskalduna A / Ig, 17

#### KOPA

##### EMAITZAK

Euskalduna B-Urnieta B	4-1
------------------------	-----

#### ASTEBURUKO PARTIDA

16:30 Danena-Urnieta A / Lar, 10

16:30 Aloña Mendi-Euskalduna A / Ig, 17

#### OHOREZKO MAILA

##### EMAITZAK

Vasconia-Euskalduna	3-1
---------------------	-----

#### ASTEBURUKO PARTIDA

10:30 Euskalduna-Oiartzun / Lar, 10

#### KOPA

##### EMAITZAK 4. MULTZOA

Urnieta-Sanse A	2-1
-----------------	-----

##### EMAITZAK 7. MULTZOA

Ordizia-Euskalduna	0-0
--------------------	-----

#### ASTEBURUKO PARTIDA

- Euskalduna-Tolosa / Lar, 17

#### KADETE MAILA, NESKAK

##### EMAITZAK

Urnieta-Touring	1-8
-----------------	-----

### ESKUBALOIA

#### SENIOR MAILA, MUTILAK

##### EMAITZAK

Leizaran-Legazpi	23-34
Urnieta-Tolosa B	31-18

#### ASTEBURUKO PARTIDAK

16:45 Eibar-Leizaran / Lar, 10

17:30 Aritzatalde-Urnieta / Lar, 10

#### SENIOR MAILA, NESKAK

##### EMAITZAK

Urnieta-Alaia B	27-24
Leizaran-Ordizia	36-18

#### ASTEBURUKO PARTIDAK

16:00 Egia-Urnieta / Lar, 10

#### JUBENIL MAILA, MUTILAK

##### GIPUZKOAKO TROFEOA

##### EMAITZAK

Urnieta-Elgoibar	17-23
Leizaran-Ordizia	31-32

#### ASTEBURUKO PARTIDAK

- Hettich ZKE-Urnieta / Lar, 17

- Elgoibar-Leizaran / Lar, 17

#### JUBENIL MAILA, NESKAK

##### GIPUZKOAKO TROFEOA

##### EMAITZAK

Urnieta-Aloña Mendi	21-14
Ereintza-Leizaran	23-23

#### ASTEBURUKO PARTIDAK 1-2 M.

- Untzilla-Urnieta / Lar, 17

- Leizaran-Tolosa / Lar, 17

#### KADETE MAILA, MUTILAK

##### EMAITZAK

Legasa-Leizaran Horia	20-17
-----------------------	-------

#### ASTEBURUKO PARTIDA

- Leizaran Horia-Egia 3 / Lar, 17

#### FORU ALDUNDIKO TORNEOA

##### EMAITZAK

Bera Urdina-Urnieta	37-30
Tekniner Eibar-Leizaran	34-37

#### ASTEBURUKO PARTIDA

- Urnieta-Amenabar B / Lar, 24

- Leizaran-Komat Eibar / Lar, 17

#### KADETE MAILA, NESKAK

##### EMAITZAK

Leizan Horia-Legazpi	8-32
----------------------	------

#### FORU ALDUNDIKO TORNEOA

##### EMAITZAK

Leizaran Urdina-Ordizia	17-14
Urnieta-Alaia B	23-24

#### ASTEBURUKO PARTIDAK

- Usurbil A-Leizaran Urd. / Lar, 17

- Ordizia-Urnieta / Lar, 17

## HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTEGUNA 8

**ANDOAIN Inauteriak**

Ostegunean hasita, ospakizun ugari herrigunean. Egitarau osoa 6. orrialdean ikusgai.

*Ostegunetik igandera.*

**ESKUALDEA Deialdia**

Langabezia-egoeran dauden 20 urtetik 44 urtera bitarteko unibertsitateko edo LHko goi-mailako zikloko tituludunak laneratzeko proiektua da Hazilan. Informazio osoa, 4. orrialdean ikusgai.

*Urigain, bulego ordutegia.*

**ANDOAIN Arretarako bulegoa**

Frankismoko biktimen arretarako bulegoa zabalik.

*Bastero, 17:00-19:30.*

## OSTIRALA 9

**ANDOAIN Arretarako bulegoa**

Frankismoko biktimen arretarako bulegoa zabalik.

*Bastero, 10:30-13:00.*

**ANDOAIN Ikuskizuna**

Basetxea, musika tailerrak eta kantu koralk eskainitako ipuin musikatua.

*Bastero, 18:00.*

**URNIETA Lehiaketa**

Udalak bidaien diaporama lehiaketa antolatu du, Buruntzaldeko gazteentzat. Izena emateko epea otsailaren 9an amaituko da.

Oinarriak urnieta.eus webgunean.

*Izen-ematea: Lekai, Gaztelekua.*

## LARUNBATA 10

**URNIETA Inauteriak**

Ospakizun ugari herrigunean, larunbatean eta igandean. Egitarau osoa 8. orrialdean ikusgai.

*Larunbatetik igandera.*

## IGANDEA 11

**ANDOAIN Omenaldia**

Joseba Pagazaurtunduaren senideek omenaldia egingo diote, bere omenezko eskulturari.

*Goikoplaza, 12:00.*



AIURRI

**URNIETA Makillaje tailerra**

Inauterien atarian ikastaro interesgarria antolatu dute, familiako kide guztiei zuzenduta. Inauterietan mozorroa bezain txundigarria izan daitekeelako makillajea. Eta guztiaren gainetik, aurpegiko azala zaintzea garrantzitsua delako.

*Otsailak 9, ostirala. Arantzubi eraikinean dagoen Ludoteka. 17:00-19:00.*

**URNIETA Parte hartzea**

Inbertsioetarako proposamenak aurkezteko epea zabalik, otsailaren 11ra arte. Proposamenak aurkezteko: Lekai, Kiroldegia, Denda Berri, Anbulatorioa eta ikastetxeak. Baita internet bidez ere.

*Hainbat tokitan.*

**ANDOAIN Parte hartzea**

"Martxoak 8 emakume" ekitaldirako izenak proposatzeko aukera zabalik dago, otsailaren 11ra bitarte. Proposamenak luzatu daitezke Atarian, anbulatorioan, kiroldegian, Ambrosia Olabiden, Basteron edota andoain.eus webgunean.

*Hainbat tokitan.*

## ASTELEHENA 12

**ANDOAIN Lehiaketa**

Martxoaren 8ko ekitaldiak iragartzeko kartel lehiaketa. Azken eguna, otsailaren 12a. Saria 450 eurokoa da. Oinarriak: andoain.eus.

*Bastero.*

**ANDOAIN Banaketa**

Errefusaren bilketa berria martxan jarriko duten auzuneetan organikoak biltzeko edukiontzia banatuko

dituzte, hainbat etxebizitzatan. Otsailaren 12tik 16ra.

*Sorabilla, Olagain, A.Kalonge.*

## OSTEGUNA 15

**ANDOAIN Martxoak 8**

Pausoz pauso ekimenean omenduko dituztenak erabakitzeko bilera.

*Urigain, 18:00.*

## OSTIRALA 16

**URNIETA Ipuin kontaketa**

Ipuin kontaketa saioa Marisa Taberneroren eskutik.

*Lekai, 17:30.*

## LARUNBATA 17

**URNIETA Batzarra**

Denda Berri elkartearen ez ohiko batzar orokorra, presidentea eta zuzendaritza berria hautatzeko.

*Denda Berri, 17:00.*

**URNIETA Kontzertua**

Eñaut Elorrieta, Super H elkartearen alde. Sarrerak agortuta daude.

*Sarobe, 19:00.*

## ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO**

**Thi Mai**  
Larunbata, 10:  
19:30; 22:00.  
Igandea, 11:  
19:30.  
Astelehena, 12:  
19:30; 22:00.

**Una bolsa de canicas**

Larunbata, 17:  
19:30; 22:00.  
Astelehena, 19:  
19:30; 22:00.  
[Emanaldirik ez]  
Azken asteburuan ez da emanaldirik izango.

**URNIETA****SAROBE**

**Ballerina**  
Ostirala, 16:  
17:00. Euskaraz.  
**La isla de los monstruos**  
Igandea, 18:  
17:00.

## SINOPSIK

**Thi Mai**

**Zuz.:** Patricia Ferreira. **Herr.:** Espainia (2017). **Aktoreak:** Carmen Machi, Dani Rovira, Aitana Sanchez Gijon... **Iraupena:** 99 minutu.

## Vietnamera bilobaren bila

Alaba hila ostean, adopzioan eskatutako haur vietnamdarra eman diotela jakinarazi diote

Carmeni. Thi Mai du izena. Carmen eta bere bi lagunek Vietnam-era bidaiatuko dute.

## Kirol egokituen aldeko hitzarmena

Aniztasun funtzionala duten haurrei Eskola Kirolaren pareko eskaintza ziurtatzeko hitzarmena sinatu dute Urrietako Udalak eta Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioak. Udalak, herrian erroldatuta dauden haur bakoitzeko, hilero 85 euro emango dizkio Federazioari. Proiektuak duen kostuaren

%33a ordainduko du Udalak, batz bestea, hilean 50 euro. Gainera, hileko eta parte-hartzaile bakoitzeko 35 euroko beste kuota bat ordainduko du ezintasun aitortua duten adingabeak artatzeko programan. Jarduera anitzeko programa Andoaingo Allurralden burutuko da, ekainaren 30a arte.

## Spot batean parte hartzeko deia

"Pausoz pauso, Martxoak 8 Emakume" egitasmoa iragartzeko, Andoaingo Udaleko Emakume eta Gizonen Berdintasun lansailak spot bat grabatuko du. Deialdia irekia da. Lehenik "Ikus-entzunezko ahalduzko tailerra" delakoan parte hartuko dute, datorren otsailaren 24an. Informazioa Urigain etxean.



ZORION AGURRAK



**ANDOAIN**  
**Ane Etxezarreta Jauregi**  
Anek 3 urte beteko ditu otsailaren 16an. Zorionak eta muxu potoloak etxekeoen partetik.



**ANDOAIN**  
**Ekiñe**  
Iritsi da zure eguna! 4 urte potolo bete dituzu eta ederki ospatuko dugu! Zorionak Ekiñe! Etxekoak.



**ANDOAIN / ADUNA**  
**Ekiñe**  
Goazen aurten ametsak egi bilakatzen...10 urte otsailaren 13an! Muxuak denon partez. Etxekoak.



**ANDOAIN**  
**Manex**  
Zorionak Manex! 14 urte dagoeneko! Segi zure umore zatzalariarekin! Besarkada irrifartsu bat!



**ANDOAIN**  
**Naroa Vicente**  
Naroa 3 urte beteko ditu otsailaren 19an. Oso-oso ondo ospatu zure eguna maitia! Mila muxu! Amatxo, aitatxo eta Julen.



**ANDOAIN**  
**Jon**  
Sei urte laster! Ospakizunez beteko dugu eguna guztiak aspertu arte! Zorionak eta muxuak zuretzat!

GUARDIAKO FARMAZIAK

**ANDOAIN**  
**Larunbata 10 eta igandea 11**  
GOROSPE: Rikardo Arregi, 13. 943 592 415. Andoain.

**URNIETA**  
**Larunbata 10 eta igandea 11**  
ODRIOZOLA: Idiazabal, 18. 943 334 014. Urnieta. Gaez, bi herrietan: Castilla. 943 552 941. Hernani.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian. Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

**www.aiurri.eus**

Sar zaitetz "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, zorion-agurra helarazteko erabili ezazu posta elektronikoa.

**diseinua@aiurri.eus**

Mezua bidali Aiurriko posta elektronikora, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Arantzibia 4-5, behea**

Etor zaitetz bulegora, Andoainera. Telefono zenbakia: 943 300 732.

HERIOTZ-OHARRA

Tere Aranburu Etxeberria "Maite"



2018ko otsailaren 1ean hil zen, 85 urte zituela.

Dena egin besteengatik dena besteentzako egon zaitetz harro joan zaitetz harro aitona zain duzu Urkamendin barrena. Zure biloba maiteok

ZURE BILOBEN PARTETIK


EGURALDIA ASTEBURUAN



Adarramendi elurtuta zegoen asteazken goizean. ANDONI URBISTONDO

ELUR GIROKO EGUNAK DATOZ ESKUALDERA

Ostegun Gizenetik ostiralera



Ostegun arratsalde atertzera egingo du, elur-kota maila igoz. Ipar haizea eta izotza gauean.

Ostiraletik larunbatera

Goizean 0 °C inguruko temperatura. Goizak aurrera egin ahala hodeiak ugaritu eta euria egingo du, arratsaldean noizbehinka mardula izatera irits daiteke. Elur maila 500 metrotik 300 metrora jaitziko da gauean. Larunbat goiza bustia dator, arratsaldean altxako du.

TELEFONO ZENBAKIAK

**URNIETA**  
Bertan: 943 008 000.  
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.  
Ertzaintza: 943 538 840.  
Osasun zentroa: 943 006 680.

**ANDOAIN**  
Ataria: 943 300 830.  
Udaltzaingoa: 943 300 819.  
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.  
Osasun zentroa: 943 006 670.



ESKERTZA

Xanti Mendikute Albizu



2018ko urtarrilaren 31n hil zen, 74 urte zituela.

Bere familiak benetan eskertzen dizuete samin agurra bidali zenutenei eta baita bere hiletara etorri zineten guztioi ere.

FAMILIAREN PARTETIK

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732 edo [publizitatea@aiurri.eus](mailto:publizitatea@aiurri.eus)

- Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

Eskelak Aiurriin: 90 euro



## AZKEN BERBA

ANDONI URBISTONDO  
URNIETA

## Elurra

Eguraldia igogailu, autobus edo goiz erdiko kafe tarteko elkarrizketa soila dela pentsatuko duzu, baina ez da hala. Batez ere neguan, eta elur usaina sumatzean...

Garesti baitago elurra paraieotan. Olentzero bezala, urtero behin bakarrik etortzeko ohitzen hasiak ote garen...

Egon zaitezke hamar urte mapak begiratzen, aste honetako egoera eman arte. Ipar ekialdeko haize hotza eta elurra kaleraino. Hamar urte! Eta iritsi da. Meteorologia zaleontzat, hori da pagotxa hori. Gurean 1956ko otsaila ikaragarria izan zen, 1985eko urtarrila ere, eta 1996 eta 2006a ere latzak izan ziren, memoriaz gaizki ez banabil. Eta 2018koa ere izan bide da.

Baina ni kazetaria naiz, ez meteorologoa. Izatekotan meteorologoa izan nahi zuen kazetaria. Aita zenak 'tenporas' goitizena jarri ziona, Kantoiko Mari Karmenek usu gogorarazten didanez. Lerro hauek irakurtzerako Urnieta zurituko zuen akaso. Eta Tomas 'Txikia' zenarekin oroitu gara: "Elurra mendin!" botatzen zuen hark, haserre antzean. Negu gaiztoak ezagutu dituenaren testigantza zen harena.

Elurra mendian, bai, baina herrigunean ere bai. Polita delako. Eta gutxitan etortzen delako.

## AZKENA



Munduko Ziklokros txapelketan parte hartu zuen Karrika auzunean bizi den urnietarrak. FABYLUCE

## Pozik itzuli da, baina arantzatzxoarekin

Amorru puntu batekin itzuli da Olatz Odriozola, sailkapen hobia galerazi zion erorikoa izan zuelako. Igande gauerako etxean zen urnietarra, Linburg-eko Munduko ziklokros txapelketako gizonetzkoen azken proba ikusita

### Erredakzioa ANDOAIN

Odriozola larunbatean lehiatu zen, eta proba bukatzea lortu zuen, 36. postuan sailkatuz. Lokatz arrasto guztiak kentzean, asteburuko esperientziaren bilduma egin zion Aiurriri: "Kontent nago, proba bukatu ahal izan nuelako. Eta batez ere, bost hilabete atzera erietzeko ohe batean nengoelako, oinazeak

jota". Baina, lehiakorra da oso Olatz, eta arantzatzxo sartuta ere badu, postu hobia egiteko hankak eta aukera izan baitzuten. "Gaizki hasi nintzen. Atzealdean, lasterkariak saihestu ezinik, eta aurreratzeko komerriekin". Lucia Gonzalez eta Aida Nuño selekzio kideak zituen begiz jota, haiek non, euren arrastoa segitzeko asmoz. Biga-

rren itzulian katea atera zitzaion, pilotutako lokatzaren ondorioz, eta "deszentratu egin nintzen". Aurrera egitea lortu zuen, nola edo hala, eta erritmoa hartzen ari zenean, lokatzian erori, eta zirkuitua balizatzeke erabiltzen den makil baten kontra kolpe handia hartu zuen sorbaldan eta belaunean: "Min handia hartu nuen, baina egoskorra naiz,

eta 'segi, segi aurrera'" esan nion nere buruari. Azken itzuli eta erdian gorriak ikusi zituen, proba osatzeko.

Aldapa pikoa oinez igo eta bizikleta gainera igotzerakoan bizikletak esertokia erabat jirata zeukala ikusi zuen, kolpearen ondorioz. Box edo mekanikoen gunera iritsi, eta beste bizikleta hartu zuen, baina hartu zuenerako, Gonzalez eta Nuñoren arrastoa galduta zuen. Kalbario handi samarra pasa zuen helmugara iristeko: "Aurtengo Espainiako txapelketa ikusi duenarentzat, Limburgekoa bi aldiz gogorragoa izan zen". Lokatz asko, korrika egiteko tarte luzea eta teknikoak, horrela definitu du urnietarrak.

### Euskaldunekin harrituta

Olatzentzat lehen Munduko txapelketa zen, eta etorkizunak zer ekarriko dion ez dakienaz, asko gozatu omen du: "Ikaragarria izan da. 37.000 pertsona bildu dira zirkuituan bi egunetan, eta hori nahiko jende gutxi ikustera ohituta gaudenontzat, sekulako berotasuna da". Belgika eta Holandako jende asko asteburu pasa joaten da, festa gogoarekin. Euskal Herrikoek ez dute hutsik egin: "Harritzeko moduko taldeak ziren, ikurrina asko han eta hemen. Haiek bai meritua, haraino joatea ez baita merkea, ezta erraza ere".

Eta orain zer? "Atsedena hartu, aste pare bat edo. Eguraldi txarra datorrela entzun dut, beraz ezin hobe, sofan etzanda egoteko". Mendiko bizikletan hasi nahiko luke, "baina esku-muturra eta beste nola dauden ikusi behar dut. Ez dut arrisku handirik hartu nahi".



## AITA LARRAMENDI IKASTOLAK

### Mantenu arduradun bat bilatzen du

Informazio gehiago eskuratzeko eta izen emateko:  
[www.goirecursoshumanos.com](http://www.goirecursoshumanos.com)